

auzoaz auzo • AUZOZ AUZO • AUZOZ AUZO

**martutene**

# Anai-Bide, aisialdia betetzen


**U**dako atsedena eta gero, Anai-Bide Kultur Elkarreak erabakiak ditu auzoko gazteen aisialdirako egitarauak ikasturte osorako. Oraingoan, 30 haur eta gaztetxok eman dute izena baina Anai-Bidek jende gehiago hartzeko inongo arazorik ez du.

Anai-Bide taldeak 9 eta 14 urte bitarteko haurren aisialdia betetzeko egitarauak prestatzen ditu. Aurtengo ikasturterako 4 talde antolatu dira. Gazteenek, hau da, 9-10 urtekoek osatuko dute talde bat eta honek erabat euskaraz funtzionatuko du. 11-13 urtekoentzat bi talde izango dira eta laugarrena 14 urtekoek osatuko dute. Leire, Almudena, Iker eta Oihana izango dira monitorea.

Taldeak ostiralero elkartuko dira bi txandetan: 19.00etatik 20.00etara eta 20.00etatik 21.00etara. Gainera, jaialdiak, mendi-irteerak, inauterietarako festak, eta abar antolatuko dituzte.

Dirua da elkarrekin duen arazo larriena eta hainbat ekitaldi eta ekintza mugatzen dituena. Hala ere, taldeko arduradunek Martuteneko gaztetxo guztiak animatu nahi dituzte.

**ELI BETELU (TFNOA.: 467691)**



Eliza alboan dagoen lokalean antolatzen dituzte bilera eta ekintzak Anai-Bide taldeko kideek.

**herrera**

# Zortzi erregetara musean

**h**errerako Euskal Giroa elkarrekin mus txapelketa antolatu du urtero bezala. Hamaisegarren edizioa izango da aurtengo hau. Bikoteak mistoak, hau da, gizon eta emakumez osatuak edo bi gizonek osatuak nahiz bi emakumez osatuak izan daitezke.

Bikote bakoitzak 3.000 pezeta ordaindu beharko


ditu azaroaren 4an, astelehenez, hasiko den txapelketa honetan parte hartu ahal izateko. Bi ezaugarri nagusi ditu auzoan tradizio bihurtu den mus txapelketa honek: alde batetik, 8 erregetara jokatzeko dela eta bestetik, sekulako sariak banatzen direla. Bikote irabazleak 150.000 pezetako saria eskuratuko du. Bigarren

bikoteak 75.000 pezeta irabaziko ditu eta 10. geratzen den bikotera arte banatuko dira sariak. Hamargarrenek 5.000 pezeta jasoko dituzte.

Izena emateko epea azaroaren 2an amaituko da. Dena den, informazio gehiagorako, 39 60 44 telefonora deitu daiteke.

**LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:  
En la edición de esta publicación colabora:



**intxaurrondo**

# «Udalak erdiguneari lehentasuna ematen dio»

Mari Carmen Pérez Aulestiarte, Intxaurdi Auzo Elkarteko idazkaria da eta 21 urte daramatza Intxaurrondon bizitzen. Zonalde berria oso ondo ezagutzen du eta egun dituen arazoez eta gabeziaz mintzatu zaigu. Hala ere, Donostiako auzorik onena dela aitortu digu.



«Intxaurrondo ez nuke ezergatik aldatuko».

**Intxaurdi Elkartea noiz sortu zen eta zein asmorekin?**

1983an sortu zen, auzoko alde berriak zituen gabeziak konpondu asmoz. Garai hartan, lehenengo etxeak egin ziren hemen eta kaleetan ez zegoen argirik. 1984ko martxoan araudi guztia osatu zen eta auzo elkarteak guztiz eratu.

**Egun zein gabezia ditu Hego Intxaurrondok?**

Nagusiena, trafikoa antolatzeko plangintza egoki baten beharra da. Etxe eta kale txiki ugari egin dituzte eta arazoak sortzen dira hainbat lekutan. Seinaleen falta ere somatzen dugu kaleetan. Bestalde, autobus zerbitzua ez da nahikoa eta bizilagunen aldetik kexa ugari jaso ditugu.

**Zein kezka ditu une honetan auzo elkartek?**

Aipatutakoez gain, kul-

**Oso auzo jatorra ari da osatzen**

tur azpiegitura beharra ikusten dugu. Auzoa ia amaiturik dago egitura aldetik, baina kultura eta heziketari begiratz gero, gabezia izugarria dago. Kultur Etxe edo antzekoren bat beharrezkoa da, kulturaren mugimendua sortzeko. Bestalde, bizitzera etorri den jendea oso gaztea da eta inguruan ez dago haurtzaindegirik.

**Nola eragingo dio Hiper Eroski-ak hegoaldeari?**

Trafiko aldetik ez dago dudarik kontrako eragina izango duela. Errepide eta rotonda berriak eraiki arren,

kotxe gehiago ibiliko da eta horrek egungo lasaitasuna apurtuko du. Bestalde, hipermerkatuak ingurugiroan sortuko duen hondamendia ahalik eta txikiena izatea eskatzen dugu.

**Egitura aldetik auzo ondo dagoela iruditzen al zaizu?**

Bai noski. Parke eta zona berde ugari egin dira eta orokorrean, oso ondo geratu da dena. Hala ere, behin eta berriro esan dugu parke horiek zaindu egin behar direla eta oraingoz hori ez da egiten. Mantentze lanak egin ezean, urte gutxira desagertu egingo dira. Alde honetatik, ikusten dugu Udalak arreta handiagoa jartzen diola erdiguneari inguruan dauden auzoei baino.

**21 urtetan nola aldatu da auzoa?**

Onera aldatu dela uste dut, nahiz eta garai bateko goxotasuna neurri batean galdu. Lehen denak ginen ezagunak eta orain hainbeste jendekin oso zaila da harremanak gauzatzea. Hala ere, jende berria auzora egoitzean oso auzo jatorra izango dela pentsatzen dut.

**Euskara erabiltzen al da?**

Jende berria euskalduna da eta kalean askoz gehiago entzuten da euskara lehen baino. Alde horretatik oso positiboa dela ikusten dugu.

**Zein auzotan bizitzea gustatuko litzaizuke?**

Intxaurrondo ez nuke ezergatik aldatuko. Donostiako auzorik onenetakoa dela iruditzen zait eta oso gustora bizi naiz hemen.